



Bioaniztasunaren galera: egunez eguneko Mururoa

Koldo Nuñez-Betelu*



Gaur egun Ozeano Barearen erdian Frantziako Gobernuak aurrera daramatzen saio nuklearrakin lagun asko txit kezkatuak gaude. Ez da gutxiagorako, zuzenean edo saiheska planeta honetan bizi garenon eta gure ondorengo belaunaldien gainean eragin negatiboak izan ditzakete eta! Hortaz, ene ustez, helburu militar soilarekin energia nuklearraren inguruko ikerketak zein erabilerak arbuigarriak dira oso. Areago, edozein helbururako fisio-energia nuklearrak beti konponketa zaila duen zabor erradioaktiboen arazoa sortu ohi digu. Hala ere, energia nuklearra oraindik beharrezkoa izan daiteke zenbait kasutan, medikuntza esaterako eta beraz, jende anitz prest dago behar horien ondorioa den zabor nuklearra eta horrek dakarren zama ekologikoa ordaintzeko. Ez dezagun ahaztu hondakin erradioaktiboen batezbesteko bizitza milaka urtekoa dela, 25.000 urtekoa plutonioaren kasuan alegia eta beraz, gure ondorengo milaka belaunaldiei ere utziko diegula zabor arriskutsu hori.

Dena den, ez da hari hurrengo belaunaldiei utziko diegun arazo larri bakarra; espezie biologikoen egungo suntsipena ere arazo latza baita. Azken bi mendeotan, eta areago azken 50 urteotan, gizakion eraginez, bioaniztasunaren higadura **azeleratua gertatzen** ari da Lurrean eta urtero zientziarentzat ezagun nahiz ezezagun diren milaka espezie suntsitzen dira betirako. Oro har, gertatzen ari den suntsipen biologiko hori gizakion eraginez ematen ari da; gure suntsipen nagusi baten eragileak eta lukukoak gara.

Biosfera entitate askok eta desberdinek osatutako egotearen ezaugarriari bioaniztasuna deritzogu¹. Espezie biologikoak, izaki guztien aldaketa genetiko oro, eta ekosistemak zein natur inguruneen aniztasuna batzen dira **izaki bizidunon** aldakortasuna eta aniztasunaren kontzeptuaren barruan, hots, bioaniztasunean. Bioaniztasuna bizitzaren antolakuntza-maila guztietan agertzen da, zeluletatik ekosistemetaraino. Horrela, bioaniztasuna populazioen eta ekosistemen aldaketei aurre egin ahal izateko oinarritzko **balibidea** da eta ondorioz, bizidunon funtzionamendu ezinbestekoa du. Biosferak emeki-emeki zein bat-batean gertatzen diren ingurugiro-

-aldaketa ekidinezinei aurre egiteko gaitasuna du bioaniztasunaren bidez eta hortaz, bioaniztasuna zenbat eta txikiagoa izan, biosfera hainbat eta ahulagoa da. Gauza bera pentsa liteke ekosistemei buruz, baina ez da guztiz betetzen eta esate baterako, ekosistema tropikalak epelak baino anitzagoak badira ere, biek antzeko zailtasunak dituzte ingurugiroko aldaketei erantzuteko. Horregatik edozein ekosistema izanda ere, espezieen galera arao larria da.

Bioaniztasuna ez da finkoa, aldakorra baizik, etengabe oreka bila dabil. Historia geologikoan zehar, aldaketa naturalak tarteko, suntsipen txiki eta handi asko gertatu da. Suntsipen nagusiak gertatu direnean, bioaniztasuna sakonki desorekatu da eta milaka edo milioika urte behar izan dira berriro oreka erdiesteko. Suntsipenekin batera, espazio ekologikoa libratu da eta espazio hori betetzeko berriztapen biologiko sakonak, espeziazioa kasu, suertatu dira. Baina espezie berriak sortzeko, ehundaka zein milaka urte behar dira. Bioaniztasuna berriro orekatu arte, biosfera ahul dago eta suntsipena areagotzeko, hots, espezie gehiago galtzeko arriskua dago. Eta suntsipen nagusietan edozein espezie indartsu zein ahul betirako gal daiteke! Horregatik, une honetan Lurrean gizakiok eragiten ari garen suntsipena lehenbailehen geratu behar dugu, egungo suntsipen nagusi hau gure espezierako ere oso arriskutsua izan daiteke eta.

Laburtuz, egungo suntsipen nagusiak dakarren desorekak hurrengo milaka urteotan izango du bere eragina eta horretan pareka daitezke frantziako zein beste herrietaiko militarren saio nuklearrak eta zabor erradioaktiboen eraginak. Biak beraz, magnitude bereko arazoak dira eta biek gure planetaren biziaren etorkizuna jartzen dute kolokan

* Geologoa eta EHUko ikertzailea

¹ Solbrig, O.T., 1995, Bioaniztasuna
Denok, Ingurugiro Hezkuntzarako Kaiarak (1): 2-3.